

## ***Argia eta Zeruko Argia***

*Egin*, 1988-11-06.

Gaur Argia aldizkariatz ari garenean, badakigu zehazki zertaz ari garen; baina nire adina dutenei, eta nagusiagoei, noski, sortuko zaie galdera bat edo beste.

Kezka hauek argitu nahian dator nire lantxo.

*Zeruko Argia* Iruñean sortu zuten kaputxinoek hileroko bezala 1919an; asmoa, Buenaventura Oyeregi eta Damaso Intzarena izan zen, eta aurrera atera zuena, zuzendaria, Intza fraidea.

Idazten zuten gehienak ordenako jendea eta fraideak, kaputxinoak, baziren ere, 1936 gerrak hil zuen.

Euskalduna izatea zer pekatu handia den!

*Argia*, Donostian sortu zen asteroko bezala 1921an; Víctor Garitaonaindia eta Anbrosio Zatarain (aita) izan ziren sortzaileak; hau ere gerra berberak akabatu zuen 1936an.

*Argia* gaztexeago bat 1924an Donibane-Lohizunen jaio eta zazpi urte geroago, 1931an, berez edo hil zen.

Hiru hauetatik bi berrargitaratu ziren:

Donostiako *Argia* Jon Oñatibiak; Caracasen (1946-48), eta gero New Yorken beste ale batzu.

Iruñeko *Zeruko Argia*, aldizkari hauetatik zaharrena, beraz, 1954an eta Iruñean bertan berrargitarau ahal izan zuten kaputxinoek berek; lehendabizi hamabosterokoa eta Oyeregik zuzendua, eta bost urte geroago, 1959an Donostiko komentura ekarri zuten formatu handiarekin, eta arrakasta handia izan zuenez, urtebete geroago Ministerio de Información y Turismo-k itxi egin zuen. Halere, 1963an irten zen berriz, orain kaputxino gazteen eskuetan; Agustín Ezeiza eta Antonio Iturria; hauen ondotik, kaputxino ez ziren Miren Jone Azurzak, Mikel Atxagak eta Mikel Ugaldek zuzendu zuten.

Aldaketa handia egin zen *news magazine* formatoria pasa zenean, zabalkundea gehitzeko ahalegin ederra gertatu zen.

Franco hil eta gero, 1980an, hainbat laguntza eta babes eman zuten kaputxinoek laikoen eskuetan utzi zuten aldizkariaren erantzukizuna; aldi berri honetako lehen zuzendaria Elixabete Garmendia izan zen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako laguntza batzu medio, baina batez ere euskaldun gazte talde baten izpirituak bultzata, heldu da arrakasta haundiko gaurko astekari moderno izatea.

Beraz, *Argia* izenarekin jaiotako bi aldizkariak bidean geratu ziren, eta *Zeruko Argia* bezala jaio zena irten da aurrera gaurko gure *Argia* bezala.